

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Agindua 209/2020 maiatzaren 2koa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2020ko deialdia, zeina ETEei eta autonomoei zuzendua baitago**

Otsailaren 11ko 106/2020 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2020ko deialdia, zeina ETEei eta autonomoei zuzenduta baitago, eta zeinak xede baitu laguntza ematea Arabako Lurralde Historikoa turismo arloan sustatzeko jarduerak gauzatzeko.

Eskaerak aurkezteko epean, Espainiako gobernuak alarma egoera ezarri zuen lurralde osoan, Covid-19 gaixotasuna hedatzearen ondorioz sortutako osasun krisi larria zela eta.

Ezohiko egoera hori izaten ari den eragina eta dirubilketan aurreikusten den murrizketa dela eta, Arabako Foru Aldundiak aurrekontuak egokitu behar izan ditu, bai eta neurriak hartu ere, aurrekontuak berrantolatzeke eta hasiera batean beste onuradun edo jarduera batzuetarako aurreikusitako kredituak Covid-19 gaixotasunak eragindako kolektiboetara bideratzeko.

Bestalde, osasun krisiaren ondorioz, Arabako turismo sektoreko enpresek eta autonomoek zituzten lehentasunak eta beharrak aldatu egin dira eta ez dira jada otsailaren 11ko 106/2020 Foru Aginduaren bidez onetsitako laguntzen deialdian eskatu zituztenak.

Horrenbestez, egokia da aipatutako deialdia indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea, gerora agertutako arrazoiengatik, turismoa sustatzeko jardueretarako laguntzen 2020ko deialdia, zeina ETEei eta autonomoei zuzendua baitago, eta zeina otsailaren 11ko 106/2020 Foru Aginduaren bitartez onetsi baitzen.

Bigarrena. Bertan behera uztea gastu baimen hau: 30.000,00 euro, 30.5.02.3700.479.00.01 Turismoa Enpresak aurrekontu partidakoak (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105.536).

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta ebazpen hau jakinaraztea otsailaren 11ko 106/2020 Foru Aginduaren babespean turismoa sustatzeko jarduerak egiteko laguntzak eskatu zituzten enpresei eta autonomoei.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikularekin bat etorri aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakioke Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu

daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 29a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta  
Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*  
**FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**